

AKORDIOA, 2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO OHIKO PROZEDUREN BIDEZ KARRERAKO FUNTZIONARIOA IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIARENA, GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA - EKONOMIA (OHIKO PROZESUA) DEIALDI ESPEZIFIKOREN BEHIN BETIKO AZKEN KALIFIKAZIOA ONARTZEN DUENA. 2022KO URRIAREN 20KO EBAZPENAREN BIDEZ EGIN ZEN DEIALDIA.

Epaitegi honek, joan den 2024ko urriaren 1ean Enplegu Atarian argitaratutako Erabakiaren bidez, GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA - EKONOMIA (OHIKO PROZESUA) berariazko deialdiaren behin-behineko azken kalifikazioa onartu zuen, eta, aldi berean, zazpi egun balioduneko epea ireki zen kalifikazio horren aurka egokitzen ziren erreklamazioak aurkezteko

Erabaki hori UPV/EHUko gerentearen 2024ko urriaren 1eko Ebazpenarekin batera argitaratu zen. Ebazpen horren bidez, prozesu arruntaren deialdi espezifikoetan deitutako lanpostuak argitaratzeko agindu zen.

II. eranskineko 8.7 oinarri orokorraren arabera, *"Prozesuko behin-behineko azken kalifikazioa behin argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, zazpi (7) egun balioduneko epea egongo da erreklamazioak jartzeko. Erreklamazioak aurkezteko epea behin amaituta, eta erreklamazioak ebatzi ondoren, halakorik balego, argitara emango dira deialdi bakoitzeko behin betiko kalifikazioak."*

Bestalde, 8.8 oinarriak zazpi (7) egun balioduneko epea ezartzen du, argitalpen honetatik hasita, lehen aipatutako gerentearen ebazpenean zerrendatutako lanpostuak aukeratzeko.

Behin-behineko azken kalifikazioaren aurka aurkeztutako erreklamazioak prozesu arruntaren 8.7 oinarri orokorraren arabera, deialdi honen zazpigarren oinarri espezifikoarekin batera, ebatzi ondoren, epaimahai honek hau

ERABAKI DU:

LEHENENGOA. – Behin-behineko azken kalifikazioaren aurka aurkeztutako erreklamazioei erantzutea, erabaki honen eranskinean azaltzen den moduan.

BIGARRENA.– GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA - EKONOMIA (OHIKO PROZESUA) berariazko deialdian gainditu dutenen behin betiko azken kalifikazioa onartzea, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran eta hautaketa-prozesuko fase guztietako nota partzialekin.

HIRUGARRENA.- "Lanpostuak hautatzeari" buruzko 8.8 oinarri orokorra betetzea, eta zazpi (7) egun balioduneko epea jartzea izangaiek lanpostuak aukeratu ahal izateko.

Lanpostuak hautatzeko prozedura honela egingo da:

- Ohiko prozesuko deialdi honetan eta egonkortzeko ezohiko prozesu korrelatiboan parte hartzen duten pertsonen ezohiko prozesuaren deialdi korrelatibo horretatik egingo dute izapide hau.
Lanpostuen zerrenda bakarra egingo dute, eta bertan, beren lehenetasunen arabera, lor ditzaketen bi prozesuetako edozeinetan eskainitako lanpostuak ordenatuko dituzte, hizkuntza-eskakizunaren eta, hala badagokio, lanpostuek duten baldintza espezifikoaren arabera. Deialdi bateko eta besteko lanpostuak tartekatu ahal izango dira.
- Ohiko prozesuaren deialdi espezifiko honetan bakarrik parte hartu duten deitutako pertsonen deialdi honetatik egingo dute izapidea; aipatutako gerentearen 2024ko urriaren 1eko Ebazpenean zerrendatutako deialdi honetako lanpostuak baino ezingo dituzte eskatu.

Lanpostuak elektronikoki aukeratzeko, II. eranskineko 8.8.1 oinarri orokorra bete beharko da: *Lanpostuak bitarteko elektronikoen bidez eskatu behar dira, Lan Eskaintzen Atarian eskuragarri dagoen eskari orria beteta. Eskaria behin beteta, egiaztagiria eskuratuko da. Eskariarekin batera lanpostuaren betebeharrak espezifikoak egiaztatzekeo agiria aurkeztu behar da. Adierazitako epearen barruan betebeharrak espezifikoak egiaztatzekeo agiriak ez aurkezteak hautaketa prozesutik kanpo geratzea ekarriko du.*

8.8.3 oinarrian adierazitakoa kontuan hartuta, "Oinarri honetan zehazten den epean eta eran lanposturik aukeratzeko ez dute pertsonen galdu egingo dituzte hautaketa prozesuan parte hartzeagatik lortutako eskubideak; gauza bera gertatuko da hautatutako lanpostuetako betekizun espezifikoak eta/edo derrigorrezko hizkuntza-eskakizunak ez betetzeagatik esleipena ezinezkoa denean.

Era berean, hautaketa-prozesuan parte hartzeagatik lortutako eskubideak galduko dituzte hautatutako lanpostuak eskubide hobea duten beste izangai batzuei esleitu zaizkielako lanpostu bat esleitu ezin zaien pertsonen (behin betiko azken zerrendan hurrenkeraren berdina den lanpostu-kopuru bat gutxienez hautatzea gomendatzen da).

LAUGARRENA. – Horretarako gaitutako UPV/EHUko web-orrian (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/ohioko-prozesua-funtzionarioak>) eta UPV/EHUko [lan-eskaintzen atarian](#) iragarkia argitaratzea, gaitutuen azken eta behin betiko kalifikazioaren zerrenda hori kontsultatzeko.

Leioan, sinadura elektronikoa agertzen den datan,

Epaimahaiko idazkaria

Maria Arias López de Lacalle